



Hondakinak Residuos




37. Hiri Hondakinen Tasa

Biztanle eta egun bakoitzeko sortutako hiri-hondakin kopuruan izandako urteko bariazio-tasa erakusten du adierazle honek. Epigrafe honen azpian zabortegira doan hondakin frakzioa eta bereizketa bidez beren balioespenerako bildutakoak ere jasotzen dira. Beheranzko joera lortzea da helburua.

37. Tasa de Residuos Urbanos

Este indicador refleja la tasa anual de variación de la cantidad de residuos urbanos generados por habitante y día. Bajo este epígrafe se incluyen tanto la fracción de residuos que va a vertedero, como aquellos que son recogidos selectivamente para su valorización. La tendencia deseable es la disminución.

Biztanle eta egun bakoitzeko 2018an sortutako hiri-hondakin kopurua Cantidad de residuos urbanos generados por habitante y día en 2018	(a)
Biztanle eta egun bakoitzeko 2017ean sortutako hiri-hondakin kopurua Cantidad de residuos urbanos generados por habitante y día en 2017	(b)
$\left(\left(\frac{a}{b} \right) \cdot 100 \right) - 100$	
Urteko bariazio-tasa: % 1	Tasa de variación anual: 1 %



Iturria: San Markoko Mankomunitatea. Fuente: Mancomunidad de San Marcos.

2008an urtean sortutako hondakin-kopuruak gora egin ez bazuen ere, 2009. eta 2012. urteetan behera egin zuen, oro har, hondakin sorrerak, urtean % 4 jaitsiz. Beherakada horrek gaika bildutako hondakinei zein zabortegira eramaten direnei eragin zien. 2013. urtean igo ondoren, bereziki egurra eta landare-hondakinek eragindako igoera, urteko bariazio-tasak behera egin zuen 2014. eta 2015. urteetan. 2016 eta 2018 bitartean, ordea, gora egin du, % 1 urtero. 2018. urtean sortutako guztizko hondakin-kopurua 82.594.085 kg-ra heldu da, hau da, 441 kg biztanleko urtero. Krisi ekonomikoak kontsumoaren beherakadan izan duen eragina izan daiteke aurreko urteetan hondakin beherakada orokorrari eragin ahal izan dion faktoreetako bat, 2016. urteaz geroztik, ordea, gora egin du, igoera arduragarri.

Si en 2008 la cantidad de residuos producida no creció, entre 2009 y 2012 la generación de residuos se redujo de forma generalizada, disminuyendo un 4 % anual, afectando tanto a los residuos recogidos selectivamente como a los enviados a vertedero. Tras un incremento en 2013, originado principalmente por las maderas y los materiales procedentes de otros residuos verdes, la tasa de variación anual se redujo en 2014 y en 2015. Entre 2016 y 2018, esta tasa se ha incrementado en un 1 % cada año. El total de residuos producidos en 2018 ha alcanzado la cifra de 82.594.085 kg, que viene a representar 441 kg por habitante al año. El efecto de la crisis económica sobre la disminución del consumo puede ser uno de los factores que vino incidiendo en la reducción generalizada de residuos en anteriores años, pero que desde 2016 apunta a un preocupante repunte.




38. Bereizketa bidez bildutako hondakinen tasa

Udalerrian sortutako hondakin kopuru osoaren gainean bereizketa bidez bildutako hondakinen ehunekoak erakusten du adierazle honek; sortutako hondakinen guztizko kopuari dagokionez goranzko joera lortzea da helburua.

38. Tasa de residuos recogidos selectivamente

Este indicador muestra el porcentaje de residuos recogidos selectivamente sobre la cantidad total de residuos generados por el municipio, siendo la tendencia deseable el aumento con relación a la cantidad total de residuos producidos.

2018an bereizketa bidez bildutako hondakin kopurua Cantidad de residuos recogidos selectivamente en 2018	(a) = 30.413.099 kg
2018an sortutako hiri-hondakinen kopurua Cantidad de residuos urbanos generados en 2018	(b) = 82.594.085 kg
$(\frac{a}{b}) \cdot 100$	
Bereizketa bidez bildutako hondakinen tasa osoa: % 37 Tasa total de residuos recogidos selectivamente: 37 %	



Iturria: San Markoko Mankomunitatea. Fuente: Mancomunidad de San Marcos.

Gaika bildutako hondakinen portzentajeak, sortutako hondakin guztien aldean, behera egin du 2018. urtean, hiri-hondakin bezala jasotako guztizkoaren % 37ra iritsiaz, aurreko urteetan lortutako datuen parekoa. Ontzi arinak dira etxeko edukiontzietan jasotzen diren gaika bildutako zatikien artean gehien handiagotu dena.

El porcentaje de los residuos recogidos selectivamente respecto al total de los residuos generados ha descendido en 2018, representando el 37 % del total de material recogido como residuo urbano, en la línea de las cifras obtenidas en años anteriores. Los envases ligeros sigue siendo la fracción de material recogido selectivamente procedente de los contenedores domiciliarios que más ha aumentado.




39. Bereizketa bidez bildutako hondakinen tasa eta tipologia biztanle eta eguneko

Biztanle eta eguneko bereizketa bidez bildutako hondakin-kopuruaren urteko bariazioa erakusten du adierazle honek, eta sortutako hondakinen guztizko kopuruari dagokionez goranzko joera lortzea da helburua.

39. Tasa y tipología de residuos recogidos selectivamente por habitante y día

Este indicador refleja la variación anual de la cantidad de residuos recogidos selectivamente por habitante y día, siendo la tendencia deseable el aumento con relación a la cantidad total de residuos producidos.


2018an biztanle eta eguneko bereizketa bidez bildutako hondakin kopurua Cantidad de residuos recogidos selectivamente por habitante y día en 2018	(a)
2017ean biztanle eta eguneko bereizketa bidez bildutako hondakin kopurua Cantidad de residuos recogidos selectivamente por habitante y día en 2017	(b)
$\left(\frac{a}{b} \right) \cdot 100 - 100$	
Urteko bariazio-tasa: % -2	Tasa de variación anual: -2 %



Iturria: San Markoko Mankomunitatea. Fuente: Mancomunidad de San Marcos.

2018. urtean, bereizketa bidez bildutako hondakin-kopuruak behera egin du, biztanle eta eguneko 0,45 kg izanik. 2015 eta 2017 urte bitartean, ordea, gaika jasotakoa biztanle eta eguneko 0,45 kg zirelarik. Tasa honen bilakaerak etengabeko gehikuntza izan zuen 2004 eta 2008 artean, batez beste urtero % 4,6 igo zelarik. 2009tik 2011 arte, bariazio-tasa % 5,4 jaitsi zen batez beste urtero. 2012tik aurrera, tasa arinki areagotu zen, 2013. urtean biztanle eta eguneko bereizketa bidez bildutako hondakin-kopurua 0,47 kg-ra iritsiaz.

En 2018 la cantidad de residuos recogidos selectivamente ha descendido, representando 0,44 kg por habitante y día, mientras que entre 2015 y 2017 se obtuvieron cifras de recogida que venían a suponer 0,45 kg por habitante y día. La evolución de esta tasa de residuos tuvo un incremento continuado del 4,6 % anual entre 2004 y 2008, mientras que a partir de 2009 y hasta 2011, la tasa de variación descendió un 5,4 % anual. A partir de 2012, la tasa se incrementó ligeramente, llegando a representar en 2013 0,47 kg por habitante y día.



Gaika bildutako hondakinen banaketa aurreko urteekiko aldatu da 2014. urtean faktore desberdinak direla eta: 2014an hiri osora zabaltzen da materia organikoa jasotzeko edukiontzia eta etxeetako olio jasotzeko edukiontzia auzo guztietan jartzen dira.

Paper-kartoia, 2017. urtearen aldean % 2,68 igo da eta partidarik garrantzitsuena izaten jarraitzen du, edukiontzietan bildutako gaikako materialaren kopuruaren –kilogramotan– herena baino gehiago baita 2018an. Beiraren bilketa % 1,36 igo da (bai etxeetan eta baita ostalaritzan), gaika bildutako hondakinen pisuaren % 23 delarik. Ontzi arinak gaika bildutako hondakinen pisuaren % 15,71a dira, eta % 9 igo dira, azken urteetan goranzko joera antzeman daitekeelarik, 2013. urteko jaitsiera salbu. Materia organikoa, 2014. urtean edukiontzia hiri osoan ezarri eta gero, 2013. urtean % 3 eta 2014. urtean % 8 izatetik 2015. urtean % 16 izatera pasa eta 2016. urteaz geroztik proportzio berdinetan mantentzen da, jasotako kopuruan % 4,53eko igoera duelarik (familien bitartez jasotako biohondakinak % 4 gora egin du). San Markos eta Garberako eta Atotxa Errekako Garbiguneetako birziklatzeko eremuan jasotako egur eta landare-hondakinak % 6,57 dira, 2013. eta 2014. urteekin alderatuz jaitsiera nabarmena delarik, urte haitan gaika bildutako hondakinen % 29 eta % 14 izan bai ziren. Gainontzeko zatikiek % 4,93a osatzen dute, arropa nabarmentzen delarik, guztizkoaren % 2,27a baita.

A partir de 2014 la distribución de los residuos recogidos selectivamente varía respecto a años anteriores por diversos factores: en 2014 se amplía a toda la ciudad el contenedor de recogida de materia orgánica y se implementa la recogida del aceite doméstico mediante contenedores situados en todos los barrios.

El papel-cartón, cuya recogida ha aumentado un 2,68 % respecto a 2017, sigue siendo la partida más importante, ya que supone más de un tercio de la cantidad de material selectivo –en kilogramos– recogida en 2018. El vidrio se incrementa tanto en domiciliario como en hostelería, en un 1,36 %, y supone el 23 % en peso de los residuos recogidos selectivamente, mientras que los envases ligeros vienen a representar un 15,71 %, incrementándose en un 9 %, tendencia que se viene observando en los últimos años, salvo en 2013. La materia orgánica, con la implementación de los contenedores en todo el municipio a partir de 2014, pasa de representar un 3 % en 2013 y un 8 % en 2014 a un 16 % en 2015 y se mantiene en las mismas proporciones desde 2016, con un incremento del volumen total recogido del 4,53 % en 2018 (se incrementa en un 4 % el bioresiduo recogido a través de las familias). Las maderas y los materiales procedentes de otros residuos verdes recogidos en el área de reciclado de San Marcos y Garbigunes de Garbera y Atotxa Erreka representan el 6,57 %, un descenso notable respecto a 2013 y 2014, años en los que representó el 29 % y 14 % de los residuos recogidos selectivamente. El resto de las fracciones totalizan el 4,93 % restante, destacando el textil, que supone un 2,27 % del total.

MATERIA ORGANIKOAREN BILKETA

Materia organikoaren bilketa-programaren barruan 5.135.120 kg jaso dira 2018. urtean, biohondakinak gaika biltzeko edukiontzi marroian parte hartzen duten familia eta jarduera ekonomikoetara eta udalerriko ekoizle handi gisa esku hartzen ari diren erakundeetara dagokiena. 2018. urtean jasotako guztizko materia organikoak gora egin du; familiek erabiltzen dituzten kaleko edukiontziak %4 gehiago jaso da, eta ekoizle handi batzuetan gehiago jaso da 2017. urteko beharakadaren ondoren.

2018. urtean 25,731 familia atxikita zeuden biohondakinak giltzadun edukiontzi bidez biltzeko borondatezko sistemari. Familiez gain, mota desberdinetako 1.717 enpresa eta saltoki -taberna eta jatetxeak, hotelak, loradendak, supermerkatuak edo gastronomia elkarteak-, parte hartzen dute. Familiek eta saltokiek materiala behar bezala sailkatzen jarraitzen dute, kalitate oneko konposta eskuratzeko ahalbidetuz. Konpost hori obra publikoak lehengoratzeko, lurzoruak onerakartzeko edo parke eta lorategietako medeatze organiko gisa erabili ahal da.

RECOGIDA DE MATERIA ORGÁNICA

Dentro del programa de recogida de materia orgánica para su transformación en compost, la cantidad recogida en 2018 ha sido de 5.135.120 kg, correspondiente a las familias y a las actividades económicas que participan en la recogida selectiva del biorresiduo a través del contenedor marrón y a las entidades que viene participando como grandes productores del municipio. En 2018 aumenta el total de la materia orgánica recogida, incrementándose en un 4 % la cantidad recogida de las familias a través los contenedores en la vía pública y aumenta el volumen recogido en alguno de los grandes productores tras el descenso de 2017.

Durante 2018 han sido 25.731 las familias adheridas al sistema voluntario de recogida del biorresiduo mediante contenedor con llave. Además de las familias, 1.717 empresas y comercios de diverso tipo, como bares y restaurantes, hoteles, floristerías, supermercados o sociedades gastronómicas se han adherido al sistema. El material recogido sigue siendo bien seleccionado por las familias y comercios, permitiendo obtener un compost de buena calidad que puede ser utilizado en la restauración de obra pública, regeneración de suelos, o como enmienda orgánica en parques y jardines.

Materia organikoaren bilketaren bilakaera
Evolución de la recogida de materia orgánica

	2011*	2012*	2013*	2014	2015	2016	2017	2018
Bildutako guztizkoa (kg) Cantidad recogida total (kg)	858.865	907.410	1.038.062	2.367.960	4.770.700	4.919.800	4.912.600	5.135.120
Atxikitako familiak Nº de familias adheridas	3.609	3.839	4.406	17.807	21.050	22.939	24.184	25.731
% atxikitako familiak % familias adheridas	21 %	24 %	26 %	23 %	27 %	30 %	31 %	33 %
Atxikitako establezimendu kopurua Nº de establecimientos adheridos				1.348	1.559	1.569	1.627	1.717

* 2011., 2012. eta 2013. urteetako datuak Gros eta Amara auzoetako datuak besterik ez dira, gainontzeko auzoetan ez bai zegoen edukiontzirik orduan.

* Los datos de 2011, 2012 y 2013 se refieren únicamente a los barrios de Gros y Amara, en el resto no había aún contenedores.

Iturria: Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritza. Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua. Donostiako Udala.
Fuente: Dirección de Mantenimiento y Servicios Urbanos. Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad. Ayuntamiento de San Sebastián.

Biohondakinak gaika biltzeko edukiontziez gain, 797 etxetan dago konpostatzeko ontzia banakako konpostaje-programaren baitan, eta 110 familia ari dira parte hartzen auzo-konpostan Añorga Txiki, Igeldo, Zubieta, Aiete, Morlans, Ibaeta, Martutene, Intxaurren, Bidebieta eta Ulián, horretarako guneak antolatu direlarik.

Además de la recogida de biorresiduo mediante contenedor, 797 hogares disponen de compostador dentro del programa de compostaje individual o autocompostaje y 110 familias participan en el programa de compostaje comunitario en los barrios de Añorga Txiki, Igeldo, Zubieta, Aiete, Morlans, Ibaeta, Martutene, Intxaurren, Bidebieta y Ulián, donde se han habilitado instalaciones al efecto.




40. Zabortegira eramandako hondakinak

Biztanle eta eguneko zabortegian utzitako hondakin-kopuruaren urte arteko bariazio-tasa erakusten du adierazle honek, eta beheranzko joera lortzea da helburua.

40. Residuos depositados en vertedero

Este indicador refleja la tasa de variación interanual en la cantidad de residuos depositados en vertedero por habitante y día, siendo la tendencia deseable su disminución.

2018an biztanle eta eguneko zabortegira joan den hondakin-kopurua Cantidad de residuos que van al vertedero por habitante y día en 2018	(a)
2017ean biztanle eta eguneko zabortegira joan den hondakin-kopurua Cantidad de residuos que van al vertedero por habitante y día en 2017	(b)
$\left(\left(\frac{a}{b} \right) \cdot 100 \right) - 100$	
Urteko bariazio-tasa: % 3	Tasa de variación anual: 3 %



Iturria: San Markoko Mankomunitatea. Fuente: Mancomunidad de San Marcos.

Zabortegira doan hondakin-kopuruak % 3 egin du gora 2017. urtearen aldean, hondakinen guztizko sorreran antzemandako gorakadaren parekoa. 2018. urtean 0,77 kgtan kokatu da biztanle bakoitzak egunean sortutako hondakin kopurua. Guztira, 52.180.986 izan dira.


La cantidad de residuos que va a vertedero ha experimentado un incremento del 3 % respecto a 2017, superior además al incremento observado en la generación total de residuos, situándose en 2018 en 0,77 kilogramos por habitante y día, suponiendo un total de 52.180.986 kg.

RESIDUOS URBANOS EN EL CONJUNTO DEL TÉRMINO MUNICIPAL

HIRI HONDAKINAK UDAL-BARRUTIAN


Urteko Iraunkortasun Txostenean jasotako datuek, etxeetan eta hiriko jarduera ekonomiko gehienek eragindako hiri-hondakinen sorrera eta gaikako bilketa aztertzen dute. Halaber, kontuan hartu behar da, udalerrri osoan beste hondakin-fluxu batzuk ere sortzen ari direla, eta horiek ez direla kontabilizatzen Txosten honetarako urtero egiten den analisisian. Zenbait kasutan kudeaketa eta tratamendu espezifikoak duten hondakin-fluxuak direlako, hala nola, industria-, osasun- eta haragi-hondakinak, ostalaritzako olioak, araztegiko lokatza... edo eraikuntzako hondakinak, eta beste kasu batzuetan, hondakinak biltzen diren eremu espezifikoak jarduera ekonomikoko poligonoak direlako, eta hondakin horiek San Markoseko Mankomunitateak biltzen ditu.

Los datos recogidos en el Informe Anual de Sostenibilidad vienen analizando la generación y recogida selectiva de los residuos urbanos producidos por los hogares y la mayoría de las actividades económicas de la ciudad. No obstante, hay que tener en cuenta que, en el conjunto del término municipal, se vienen generando otros flujos de residuos que no se contabilizan en el análisis que anualmente se realiza para este Informe. En unos casos porque son flujos de residuos que tienen una gestión y tratamiento específico como puede ser los residuos industriales, sanitarios, cárnicos, aceites de hostelería, lodos de depuradora... o los procedentes de la construcción, y en otros casos, porque el área específica donde se recogen son los polígonos de actividades económicas, donde la recogida de los residuos la realiza la Mancomunidad de San Marcos.



2018an, hiriko jarduera ekonomikoko poligonoetan, guztira, 3.665.870 kg bildu dira, eta horietatik 2.471.804 kg gaika bildu dira, hau da, % 67. Horrez gainera, obra eta eraispentatik 913.514 kg hondakin bildu dira, eta 3.061.480 kg bideen eta hondartzen garbiketarik.

En 2018, los residuos recogidos en los polígonos de actividades económicas existentes en la ciudad representan un total de 3.665.870 kg de los que 2.471.804 kg han sido recogidos selectivamente, es decir un 67 %. Además, se han recogido un total de 913.514 kg de residuos procedentes de obra y demolición; la limpieza viaria y de las playas ha representado otro montante de 3.061.480 kg.



Informazio hau txertatuz ondorengoa jakin dezakegu: 2018an, Donostian, hiri-jatorriko hondakinen sorrera 91.143.693 kg-koa izan da; horietatik 36.452.389 kg (% 40) gaika bildu dira, eta zabortegietara 54.691.304 kg eraman dira; horietatik 48.340.740 kg (% 88) bide publikoko hondakin-edukiontzietatik jaso dira.

La incorporación de esta información permite conocer que la generación de residuos de procedencia urbana en el término municipal de San Sebastián en 2018 ha sido de 91.143.693 kg, de los cuales 36.452.389 kg (40 %) se han recogido selectivamente, y se han transportado para su depósito en vertederos 54.691.304 kg, de los cuales 48.340.740 kg (88 %) son procedentes de los contenedores de residuos en vía pública.

HIRI HONDAKINETARAKO ZUZENTARAU ESTRATEGIKOAK. ADOSTASUNERAKO AGIRI BAT

Donostiako Udaleko udal-talde guztiek osatutako hondakinen batzorde ez-iraunkor baten testuinguruan, "Hondakinen Dokumentu Gidari" bat ondu zen 2017an begia 2025ean jarrita.

Lana plangintzan adostutako esparru zehatz bat izateko beharretik sortu zen, hondakinen arloan tokiko ekintza bideratu ahal izateko. Horretarako, egoeraren diagnostiko bat egin zen, etorkizuneko erronkak eta 2025. urtean lortu beharreko jomugak identifikatu ahal izateko. Horrekin guztiarekin bat etorri, bukatzeko, lan-esparru batzuk eta guztira 78 ekintza ezarri dira, guztia ere Ekonomia Zirkularren printzipioak bere egiten dituen hiri-eredu baterantz aurreratzeari begira. Beraz, lan-esparru egonkor batez hornitutako dokumentu estrategiko hau osatu du.

Egoeraren aurreko azterketan, zailtasun handiak identifikatu ahal izan dira hondakinak murrizteko eta behar bezala horiek baliatzeko orduan; izan ere, hondakinen gaikako bilketa geldotu egin dela ikusi da argi eta garbi, eta are, zaborte gira doan zatia handitu egin dela oro har. Alde horretatik, nabarmen da iraganeko hondakin-tratamenduari buruzko gatazka politikoak izugarri zaildu duela erabakiak hartu ahal izatea; aitortzen da, halaber, errefus-zatia biltzeko sistemak eta, oro har, indarrean den hondakinak biltzeko politikak ez dutela gaikako bilketa errazten, are gehiago egiaztatu denean herritarren zati batek erosotasuna bilatzen duela artean ere, eta ez ingurumenari buruzko errespetuzkoak diren ohiturak hartzea; izan ere, egungo sistemak pentsatzeko modua ematen du kutsatzeko nolabaiteko eskubidea badugula (tasa bat pagatzen ari garelako), eta egiaztatu izan da, halaber, arlo horretan konfiantza galtzeko arriskua ere bada-goela, baita gardentasun, komunikazio eta diziplina ahaleginak sendotu behar ditugula ere.

Dokumentuak etorkizunerako erronka nagusiak identifikatzen ditu. Haietako bi aipatzekotan: alde batetik, ohitura-aldaketari eta ekodiseinuari lotuta prebentzio-lana sendotzeko beharra eta, era horretan, hondakin gehiago sortzeko joera geldiaraztea; bestetik, gardentasuna sendotzea, informazio erreala emanez, herritarren multzoak etengabe eta erraz ulertzeko modukoa, nabarmenduz hondakinak biltegitatu ondoren haiekin zer gertatzen den azaltzen duten mezuak eta, hartara, herritarren ardurakidetasun-kultura bat garatuz eta elkarrean sarea ahaldunduz. Era berean, hondakinen kudeaketa hobertzeko beharra ikusten da, zerbitzua hobetuz, baina horien kostua areagotu gabe eta "beste kostu batzuk" kontuan hartuz, adibidez, ingurumenekoak, eta hartzen diren helburu eta erronkekin bat datorren politika fiskal bat bultzatuz, ohitura-aldaketak hauspotzeko (ez bakarrik zabortasan, baizik eta zerga-politika orokorrean ere). Laburbilduz, Donostia prebentzio-gaieran eta hondakinen kudeaketan erreferente bihurtu nahi da.

DIRECTRICES ESTRATÉGICAS PARA LOS RESIDUOS URBANOS. UN DOCUMENTO DE CONSENSO

En el marco de una Comisión no permanente de residuos integrada por la totalidad de grupos municipales del ayuntamiento de San Sebastián, se elaboró en 2017 un "Documento Director de Residuos" con el horizonte de 2025.

El trabajo partió de la necesidad de disponer de un marco consensuado de planificación específico que permitiera orientar la acción local en el ámbito de los residuos. Para ello se efectuó un diagnóstico de situación que permitiera identificar los retos de futuro y las metas a alcanzar en el año 2025. En coherencia con todo lo anterior, finalmente, se han establecido unos ámbitos de trabajo y un total de 78 acciones, todo ello con la vista puesta en avanzar hacia un modelo de ciudad que integre los principios de la Economía Circular. Así se ha configurado este documento de carácter estratégico dotado de un marco estable de trabajo.

En el análisis previo de la situación se han podido identificar importantes dificultades para avanzar en la reducción de residuos y su debido aprovechamiento, apreciándose un estancamiento claro en la recogida selectiva de los residuos, cuando no el incremento general de la fracción que va a vertedero. En este sentido se señala cómo el pasado de confrontación política sobre el tratamiento de los residuos ha dificultado enormemente la toma de decisiones; también se reconoce que el sistema de recogida de la fracción rechazo y, en términos generales, la política de recogida de residuos vigente, no favorece la recogida selectiva, máxime si se constata que existe un sector de la ciudadanía en el que persiste la búsqueda de la comodidad frente a la adopción de hábitos respetuosos con el medio ambiente y el sistema actual induce a pensar que hay un cierto derecho a contaminar (ya que se está pagando una tasa) y se constataba también el riesgo de pérdida de confianza en este ámbito y la necesidad de redoblar los esfuerzos en transparencia, comunicación y disciplina.

El documento identifica los principales retos para el futuro. Cabe señalar dos de ellos: por una parte, la necesidad de reforzar el trabajo en prevención asociado al cambio de hábitos y al ecodiseño para frenar la tendencia de incremento de la generación de residuos, y, por otra, reforzar la transparencia, aportando información real, constante y fácilmente comprensible por el conjunto de la ciudadanía, haciendo hincapié en que los mensajes expliquen qué sucede con los residuos una vez son depositados, desarrollando una cultura de corresponsabilidad ciudadana y empoderando al tejido asociativo. Del mismo modo, se plantea la necesidad de optimizar la gestión de los residuos, mejorando el servicio pero sin incrementar el coste del mismo y considerando "otros costes", como los ambientales e impulsando una política fiscal acorde a los objetivos y retos que se adopten, y que incentive el cambio de hábitos (no solo tasa de basuras

Begia 2025ean jarrita, ezarritako jomugetako bat da hondakinen guztizko sorrera % 11 murriztea, jabetzen baikara 2010-2016 aldian hondakinen sorrera guztira % 3,7 hazi dela. Beste jomuga garrantzitsu bat da 2025. urtean gaikako bilketa % 64koa izatea, gogoan izanik egungo gaikako bilketa % 40 eskas dela. Udalak berak sortutako hondakinen kudeaketari dagokionez, kontratazio publikoari jarri zaio arreta, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeke erabiltzen diren baldintza-agirietan ingurumenaren alde jartzen den ahalegina zabalduz, jomugatzat jarritz 2025erako identifikatutako 20 produktu eta zerbitzuren lizitazioetako % 60tan ingurumen-irizpideak sartzea: papera, ordenagailuak, inprimatze-ekipoak, eraikin-garbiketa, ibilgailuak, argitalpenak, elikadura, lorezaintza, bide-garbiketa, obra zibila eta azpiegiturak, eraikuntza, hirigintza, hondakin-bilketa, elektrizitate-hornikuntza, garraio publikoa, mezularitza, bulego-altzariak, ehunak, bidaiak eta ekitaldiak.

Ondorengo eskeman, Ekonomia Zirkularren estrategia batean oinarritutako lan-esparruak eta 78 ekintzak zehazteko balio izan duten ekintza-esparruak biltzen dira; informazio osoa, berriz, hemen aurki daiteke:

sino política fiscal general). En definitiva hacer de San Sebastián un referente en materia de prevención y gestión de residuos.

Con el horizonte puesto en 2025, una de las metas establecidas fija reducir la generación total de residuos en un 11 %, siendo conscientes de que en el periodo 2010-2016 la generación total de residuos se ha incrementado en un 3,7 %. La otra meta importante es alcanzar un 64 % de recogida selectiva en el año 2025, partiendo de que actualmente la tasa de recogida selectiva no supera el 40 %. Respecto a la gestión de los residuos generados por el propio ayuntamiento se fija la atención en la contratación pública, ampliando el esfuerzo que actualmente se viene haciendo con la ambientalización de los pliegos a través de los cuales se contratan los bienes y servicios, estableciendo como meta ambientalizar el 60 %de las licitaciones en el año 2025 de 20 grupos de productos y servicios identificados: papel, ordenadores, equipos de impresión, limpieza de edificios, vehículos, publicaciones, alimentación, jardinería, limpieza viaria, obra civil e infraestructuras, edificación, urbanización, recogida de residuos, suministro eléctrico, transporte público, mensajería, mobiliario de oficina, textiles, viajes y eventos.

Los ámbitos de actuación que han servido para la formulación de los ámbitos de trabajo y las 78 acciones basándose en una estrategia de la Economía Circular se recogen en el siguiente esquema, cuya información completa se encuentra en:

